



## 1. Gogoetan

Eusko Jaurlaritzak Irakurketa Plana aurkeztu du berriki. Plan honen bitartez, irakurketa gizartearen kultura eta hezkuntza lehenetsunetako bat bihurtu nahi du Jaurlaritzak eta Erkidegoa garatzeko eragiletzat hartu du. Poliki-poliki joango dira azaltzen Plan berriaren emaitzak.

## 2. Egitasmoa martxan

ABUSUN, Bilbo eta Arrigorriagako udalen parte den auzoan, *Bularretik Mintzora* egitasmoarekin pauso berri bat emango dugu. ABUSUKO LIBURUTEGIAREN eskariz, aspaldian Galtzagorriek zuen kezka bati erantzun diogu horrela: jaio aurretik eta lehenengo bi urteetan, haurren inguruan diren bitartekari guztiengana heltzea, guraso, hezitzaile eta bibliotekariengana, orain arte bezala; baina baita osasun sektorekoa langileengana ere, hau da, emagin, pediatra eta pediatriako erizainengana. Plangintza guztia aurrera eramanez, ABUSUKO OSASUN ZENTROA eta ABUSU SAREAN erakundea ere lankidetzan dihardute.

Bizkai aldean jarraituz, herri txikietan *Bularretik Mintzora* egitasmoa ezartzeko modu berri bat probatuko dugu EAN. Bertan, prestakuntza bitartekari guztiei batera emango zaie, bai gurasoei, bai hezitzaileei, bai interesatuta dauden beste helduei ere. Eta aurrerago, ondo bidean, eskolan lan egiteko biblioteka txikia sortzeko aholkularitza emango da eta gaiaren inguruan hitzaldi desberdinak burutzen joango dira.

## 3. Hausnarketa gunea

Aurki banatuko dira 5 urteko geletako haurren artean Gurasoen Bukaerako Galdekizuna, *Bularretik Mintzora* egitasmoan hasieratik egitasmoan parte hartzen ari diren herrietan: Amurrio, Aramaio, Ermua, Iurreta, Markina, Oñati eta Tolosan hain zuzen ere. Galdekizun honek, hiru ikasturtetan zehar parte hartzen ari diren familien artean, egitasmoaren eragina neurtzeko balioko du.

Esan behar da iazko emaitzak baikorrak izan zirela eta, aurten ere, irakurketa ohituren garapenean egitasmoaren eragina onuragarria dela frogatuta geratzea espero dugu; horrela baitiote orain arte jasotako inpresioek.

## 4. Ongi pasatzeko!

Gaurkoan tradiziozko behatz-jolas txiki bat ekarri dugu atal honetara. Nahiz eta ahozko tradizioaren transmisioak eten bat izan duen, oraindik han eta hemen aurkitu daitezke bizirik mantendu diren ereduak. Hernani aldeko ekarpena da eta jolasteko aitzakia ederra eskaintzen digu! [Unilla, dosilla..](#)

Inork era honetako testigantzak jasoak baditu, eta partekatzea nahiko balu, gustura hartuko genituzke [galtzagorri@ibbygaltzagorri.eus](mailto:galtzagorri@ibbygaltzagorri.eus) helbidean, beste buletin batzuetan argitaratzeko.